

# MEACHINE AURKEZPENA

Meachine makina bat da zeina animal haragia sortzen duen animalia zelula batzuetatik. Makina hau sortzea lortu dugu zenbait zientifiko, ikertzaile, biologo eta espezialisten laguntzarekin, laborategietan hainbat ikerketa eta esperimendu egin ondoren.

Makina zoragarri honekin ingurumena hobetzeko gaitasuna dugu, animaliak gaizki tratatzen dituzten makroabeltegiak eta makrobaserriak ez liratekelako gehiago existituko, izan ere, ez lirateke hainbeste animalia hil behar haragiaren munduko eskaria asetzeko. Hari esker, animalien maltratua desagertuko litzateke behin betikoz, eta ondorioz, kalitatezko haragia jango genuke, eta ez txarto pasatu duten animaliena, zeina askotan gaixotasunak eta kalteak dakartzan gure gorputzarako.

Gure produktua pentsatuta dago etxe bakoitzean “meachine” bat egoteko. Horrela jendeak dirutza ikaragarria aurreztuko luke, ez lukeelako gehiago erosi behar haragitegietan, eta gainera azkarrago lortuko lukete, ez liratekelako etxetik atera behar. Bestalde, ez litzateke behar inolako garraiorik animalia haragia garraiatzeko eta ondorioz, kutsadura asko murriztuko litzateke.

Beste alde batetik, lortuko genuke begetarianoek animalia haragia jan ahal izatea, haragi hau sortzeko ez direlako animaliak hil behar, baizik eta haren zelula batzuk erabili beraiek duten haragia sortzeko. Horren ondorioz, begetarianoak animaliek dituzten proteinak lortzeko gai izango dira inolako medikamenturik jan behar gabe eta ez dira inoiz desnutrituta egongo.